



BARREN
TOKIKOM



Hitza jolas bertso-eskolan

INDARKERIA MATXISTAREN

AURREAN

EZ

ZAITEZ

IKUSLE

HUTS

BAT

IZAN

ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.



NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:
berdintasuna.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

Zer moduz ari zara Euskaraldia ariketarako aukeratu duzun rola betetzen?



PEPI CALLEJA: “Belarriprest aukeratu dut, nahi dudalako jendeak niri euskaraz hitz egitea. Esan diet lagunei nirekin euskaraz hitz egiteko, eta txapa edo musukoa jantzi dudanetik jendeak gehiago egiten dit euskaraz. Ulertu ia dena ulertzen dut, baina hitz egiteko zailtasunak ditut. Saiatzen naiz ahal dudana euskaraz erantzuten, baina kostatu egiten zait. Jubilatuta nago orain, eta neure buruari jarri diot erronka moduan euskara ikastea eta ari naiz saiatzen. Pintura eta euskara dira orain nire bi zeregin nagusiak”.



IMANOL CERDEIRA: “Aurreko edizioan Belarriprest izatea aukeratu nuen, baina oraingoan aldatu egin dut rola, eta Ahobizi izatea erabaki dut. Egia esan, zaila ari zait egiten ariketa, eta ez naiz guztiz betetzen ari. Saiatzen naiz, baina gaztelaniarako joera daukat eta ohitura hori aldatzea oso zaila da. Saiatzen ari naiz, eta kontzienteki hartu nuen Ahobizi rola, baina ez dut guztiz bete. Belarriprest izatea errazagoa iruditu zitzaidan”.



MIRIAM IRIONDO, Iriondo Kirolak: “Nik Ahobizi rola aukeratu dut, eta oso ondo ari naiz, beti bezala, euskaraz. Aurrekoan egoera oso polita izan genuen dendan: argentinar bat, paskistandar bat eta Hego Ameriketako beste bat, hirurak euskaraz aritu ziren euren artean. Bakoitzak bere erara eta ahal zuten moduan hitz egiten zuten, baina niretzako sekulako momentua izan zen, oso polita”.



AMAIA REVERT: “Ahobizi naiz, euskaraz bizi nahi dudalako. Gurasoak erdaldunak dauzkat, ikasketak erdaraz egin nituen, eta halako lotsa moduko bat sentitu izan dut beti euskaraz egiteko, eta horrek amorrarazten ninduen. Ikasi nuen euskara, baina, eta orain, ahal dudana guztian egiten dut. Irakasle naiz A ereduko ikastetxe batean, erdaraz ematen ditut eskolak, baina han ere lehen hitza euskaraz egiten saiatzen naiz beti. Ez dute denek ondo hartzen, baina nik nirea egiten dut. Kanean euskaraz egiten dut. Lagun batekin dauzkat zailtasunak. Ahobizi gara biok, baina erdaraz ezagutu genuen elkar eta kostatzen zaigu nahi baino gehiago”.



MARIA URIZAR, Maria Urizar ileapaindegia: “Belarriprest izatea aukeratu nuen, hala gomendatu zidatelako antolatzaileek. Nire bezeroak denetariakoak dira, eta haiekin beraien hizkuntzara moldatzen naiz. Lehenengo hitza denei egiten diet euskaraz, baina ez dakienarekin gero gaztelaniaz hitz egiten dut. Beraz, arazorik gabe ari naiz Belarriprest rola betetzen. Txapa jantzi dut soinean, baina praktikan ez dut askorik aldatu, eta txapa janzteagatik ere ez dut igarri jendeak gehiago egiten didanik euskaraz”.



RAUL SANTAMARTA: “Ondo ari naiz moldatzen. Egia esan, nik duela bi urte eman nuen pausorik handiena, Ahobizi rola hartu eta arrebarekin euskaraz egiten hasi nintzenean, ordura arte dena erdaraz egiten genuelako guk. Gurasoak erdaldunak dira eta euskara ikasia dut. Euskaltegian ibili nintzen trebatzen eta orduan hartu nuen konpromisoa ahal nuen guztian euskaraz egiteko, eta saiatzen naiz erronka hari eusten egunero. Euskaraldiagatik baino gehiago neure buruari jarritako erronkagatik egiten dut lehen hitza euskaraz. Erraztasuna falta dudala igartzen dut batzuetan, ez naizela gai esan nahiko nukeena ondo adierazteko euskaraz, baina neure burua behartzen dut euskaraz egitera eta whatsappak euskaraz idaztera”.





ANE ASTIAZARAN

Itzultzailea

Aldarrikapenak

zenatoki horiek euren artean ez dutela zerikusirik.

Guztiok izan dugu egoera berri honetara moldatzeko, egokitzeke, ohitzeko beharra eta betebeharra, langileek, ikasleek, pentsiodunek, aldarrikapenek. Euskaraldiak ere moldatu behar izan du egunerokotasun isil honetara, eta paradoxa dirudi *gehiago, gehiagotan, gehiagorekin* lemak, Andoni Egañak *Berria* egunkarirako idatzi zuen artikulua batean aipatzen zuen lez "gutxiago, gutxiagotan, gutxiagorekin" egingo baitugu euskaraz (eta baita beste hizkuntza guztietan ere) hamabost egun hauetan.

Isiltasunak jan ditu kaleak, pandemia iritsi artean erabiltzen genituen sozializatzeko espazioak, isiltasunak jan gaitugu. Eta hala ere, kalean ikusten da jen-

dea Ahobizi edo Belarriprest txaparekin gehiago, gehiagotan, gehiagorekin hitz egiteko borondatea erakutsiz. Badaude, zailtasunak zailtasun, txapa eramateko apustu hori egin dutenak, eta saiakera horri eutsiko diotenak, hierarkia linguistiko eta kulturalak iraultzeko prest daudenak.

Ez elkarretaratzeetan eta ez sareetan. Gorputzean daramagu diskurtsoa, txapa forman (ere). Agian ez dugu aukerarik izango euskaraz duela bi urteko Euskaraldian baino gehiago, gehiagotan, gehiagorekin egiteko, baina geure gorputzak diskurtso gisa aldarrikatzen ditugun neurrian bihurtuko da geure gorputza euskararen aldarrikapen eremu ere. Kaleak, sareak, gorputzak. Ondo legoke aldarrikapen honek esparru guzti horiek hartzea. Iritsiko dira garai hobeak.

Pandemiaren kontu guzti honekin aldarrikapenak egiteko modua nola edo hala aldatu egin behar izan da. Elkarretaratzeak egiteko aukera egon badago (falta zena!), baina mesfidantzaz begiratzen diegu oinarritzko eskubideak aldarrikatzen dituzten horiei, sekulako zorakeria egitear balaude bezala. Sareak bihurtu dira, agian, espazio publikoa hartzearen alternatiba, baina guztiok dakigu bi es-

"Badaude, zailtasunak zailtasun, txapa eramateko apustu hori egin dutenak, eta saiakera horri eutsiko diotenak, hierarkia linguistiko eta kulturalak iraultzeko prest daudenak"



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskararen Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloe Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Cayetano Casquero Moriano

2020ko azaroaren 19an hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure falta somatzen dugu, baina gure bihotzetan zaude.

Familiakoak



M^a Antigua Ramirez Mellado

2020ko azaroaren 17an hil zen, 88 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

***Borrokalari nekaezina izan zinen
azken unera arte;
beti izango zara gure oroimenean.
Maite zaitugu.***



Eskertzak eta urteurrenak
943 743 704 / 943 744 112
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus




Juan Jose Agirre Uribe

"Elorrio"

1928-2020

***Arinago mendixek
ikusi dodazan moduen,
ikusten dodaz nik
goiko kamino barrixen.
Entzuten dodaz alai txistuek
eta ni? ni danbolinean,
saltzan, betiko moduen...***

Alex Sardui Agirre



13 eta 40 urteko bizilagunei PCR probak egiten ari dira atzo eta gaur



Esusko Jaurlaritzako Osasun Saila PCR probak egiten ari zaizkie Elgoibarko 13 eta 40 urte arteko elgoibartarrei. Atzo hasi ziren probak egiten, eta gaur amaituko dute baheketa. Probak anbulatorioan ari dira egiten. Gaur arratsaldean 15:00etatik 19:00etara egingo dituzte probak. Proba egiteko beharrezkoa da aurrez hitzordua hartzea, 943 032 644 edo 900 20 30 50 (Osasun aholkua) telefonoetara deituta. Osasun Sailak jakitera eman duenez, PCR proba egin ondoren komenigarria da harreman sozialak saihestea, maskara erabiltzea eta segurtasun distantziak mantentzea. Proben emaitzak gehienez ere 72 ordura jasoko dituzte herritarrek SMS bidez, eta emaitza positiboa ematen dutenei telefonoz ere deituko diete. Osasun Sailak eta Osakidetza herritar guztiei gogorarazi diete COVIDekin bateragarriak diren sintomak edukiz gero –besteak beste, sukarra, eztula, eztarriko mina, arnasteko zailtasunak edo usaimenaren galera– beren etxeetan isolatzeko eta osasun-zentrorra deitzeko.

EHBilduk gardentasuna eskatu du

Elgoibarren PCR proba masiboak egiten hastea albiste ona iruditu zaio EHBilduri baina, aldi berean, kezka agertu du: "Urriaren 24an gure proposamena egin genuenean, Ane Beitia alkateak adierazi zuen ez zegoela baheketa masiboa egiteko beharrik, Elgoibarren egoera kontrolpean zegoelako. Gure buruari egiten diogun galdera hau da: orain zergatik egiten dute baheketa masiboa, egoera kontrolpean ez dagoelako?". EHBilduk uste du horrelako krisi egoeretan herritarrei "argi" hitz egin behar zaiela, "argi eta azkar" azaldu behar zaiela zein egoeratan gauden eta zergatik hartzen diren erabakiak. Horregatik, esan dute beraien ustez beharrezkoa dela udal-gobernuak eta Osakidetza azaltzea zergatik egiten den orain baheketa masiboa Elgoibarren adin tarte jatekin batekoen artean, eta zergatik ez den lehenago egin. Azkenik uste dute probak egiteko adin tarte zabalteak herriko egoeraren argazki zehatzagoa emango lukeela.

Hileko azken zapatuko feria, bihar

Elgoibarko Udalak eta Debemeneak antolatuta, azaroko azken zapatuko feria egingo dute bihar, baina, koronabirusaren eraginez, oraingoan ere ez dute txosnarik jarriko, eta umeentzako tailerrik ere ez da egongo. Hortaz, soilik Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera izango da, goizez, Kalebarren plazan.

Eguberrietako artisau feria egingo dute Eibarren abenduan

Eibart artisau taldeak urtero antolatzen du Eguberrietako artisau feria Gipuzkoako herri desberdinetako artisauekin, eta aurten ere aurrera egin dute egitasmoarekin. Koronabirusaren eraginez, baina, aurten besteetan baino postu gutxiago jarriko dituzte, 10 gutzira, eta ez da azoka aire librean egingo dute, artisauentzat eta baita herritarrentzat ere osasun arrisku gutxiago egon dadin. Artisau azoka Eibarko Untzaga plazan izango da abenduaren 18tik urtarrilaren 5era.

Gabonetako postalak egitera deitu dituzte Mendaron eskola-umeak

Gabonetako postala sortzera animatu dituzte Arno guraso elkartetik Mendaroko eskola-umeak. Jakinarazi dute postala izan daitekeela marrazki bat, idatzi bat, bertso bat, edo beste edozer, eta haurrek edozein teknika eta material erabili ahal izango dutela sortzeko. Postala egiteko orria ikastolan jasoko dute eta lanak tutoreari entregatu beharko dizkiote, beranduenez abenduaren 18rako. Bildutako lan guztiekin erakusketak sortuko dute ondoren udaletxeko atarian

Hamabi tableta erosteko dirua eman dio La Caixak Elgoibarko Jubilatuen Biltokiari



Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak zahartze aktiboa sustatzeko konpromisoa hartu du. 1.300 bazkide inguru dira Jubilatuen Biltokian eta gogorarazi dute 60-80 urte bitartekoek industria mekanikotik industria digitalera igarotzeko eraldatze prozesuan parte hartu dutela. Boligrafoak, idazmakinak eta kalkulagailuak erabiltzetik ordenagailuak erabiltzera ohitu dira, marrazketa mahaitik CNC eta CAD-CAM programetara jauzi egin dute, informazioa liburu eta egunkarietan bilatzetik Interneten bilatzera. Erretiroa hartu zutenean, baina, askori teknologia digital berrietara egokitzeko aukerak murriztu zitzaizkien, eta horri irtenbidea bilatu nahi izan dio Jubilatuen Biltokiak. Egiteko horretan zebiltzala jakinarazi zioten zuzendaritzakoek La Caixari, eta haren obra sozialaren bidez, Jubilatuen Egoitzako informatika gelarako hamabi tableta erosteko dirua jaso dute. Tableta horiei esker oinarrizko ezagutza digitala hartzeko edo dakitenean sakontzeko bidea izango dute jubilatuek eta horregatik elkartetik eskerrak eman dizkiote Caixari emandako laguntzarengatik.

Bestalde, gogorarazi dute pandemia dela-eta Biltokiko tabernak itxita jarraitzen duela eta ezin izango dituztela antolatu azaro bukaeran egin ohi dituzten ekintzak: merienda, bazkari, omenaldi, zine-emalandi, hitzaldi, bingo, meza eta dantzaldia.

Gurasoentzako formazio-saioak Elgoibarren

Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailak guraso trebetasunak lantzeko formakuntza zikloa antolatu du Agintari Gizarte Ekimeneko Kooperatibarekin elkarlanean. Ikastaroa Gizarte Zerbitzuetako edota Ludotekako erabiltzaileak diren 6 eta 12 urte bitarteko seme-alabak dituzten guraso edota turoreei dago zuzenduta. Azaroaren 26tik urtarrilaren 26ra egingo dute, eta gurasoei hezkuntza-eremuak eta hezkuntza-jarraibideak hobetzeko tresnak eta trebetasun egokiak ematea eta partekatzea izango du helburu nagusi formazio zikloak. Zehazki honako puntu hauek landuko dituztela aurreratu dute: familia egitura, hezkuntza ereduak, arau eta mugak, emozioen kudeaketa, guraso eta seme-alaben arteko harremana...

Guztira, zortzi zaio egingo dituzte eta talde edota taldeak astean behin elkartzeko dira Kultur Etxeko sotoan goizez eta arratsaldean (parte-hartzaileen arabera talde bat baino gehiago antolatuko dituzte). Ekimenaren parte hartu nahi dutenek aldezturik eman behar dute izena, Ludotekaren bitartez: ludotekaelgoibar@gmail.com / 943 748 883- 656 740 793.

'Salbuespeneko espetze politika amaitzea' eskatu zuten Sarek zapatuan



Izan Bidea dinamika plazaratu eta ahalik eta herritar gehien dinamikara batzeko asmoarekin, herriz herri eta auzoz auzo mobilizazioak antolatu zituen joan zen zapatuan Sarek, *bidea gara, bidean gaude* lelopean, eta Elgoibarren giza katea egitea erabaki zuten. "Urgentziazkoak eta beharrezkoak diren hainbat pauso" eskatu ditu Sarek Hego Euskal Herriko hamaita plazatan egin dituzten mobilizazioetan, "preso eta iheslarien etxerako bidea egiteko". Besteak beste, larriki gaixo dauden presoak aske uzteko, urruntze politika amaitzeko edota zigorrak batzeko eskatu dituzte.

1.499 elgoibartarrek eta 239 mendarorrek eman dute izena Euskaraldia ariketan

A benduaren 4an bukatuko da Euskaraldia, euskara ulertzen duten hiztunen arteko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala. Bigarren edizio honetan, 1.499 elgoibartarrek eta 239 mendarorrek eman dute izena, lehen edizioan baino 304 eta 81 lagun gutxiagok, hurrenez hurren. Izena ematea jaitsi egin da, baina bai Elgoibarko Euskaraldia Taldea eta baita Mendaroko Euskara Batzordea ere oso gustura dauden herritarrek ariketari erakutsi dioten atxikimenduarekin. Bizi dugun pandemia egoerak eragin handia izan du bigarren edizioan jenderatzeko orduan, baina, zailtasunak zailtasun, herritarrek egoki erantzun diotela baloratu dute antolatzaileek. Rolei dagokionez, 1.084 Ahobizi (%72) izan dira Elgoibarren, eta 415 (%28), Belarriprest. Generoari dagokionez, berriz, bigarren edizioan ere desoreka handia egon da, zertxobait apaldu bada ere: ariketan parte hartu dutenetako 888 emakumeak izan dira (%59), eta gizonezkoak, 611 (%41). Adin tarteari erreparatuz gero, berriz, hiru adin-tarte bereiztu ditu Elgoibarko Euskaraldia Taldeak: 16-30 urte bitartekoak (290 lagun, %19), 31 eta 50 urte bitartekoak (703 lagun, %47) eta 51 urtez gorakoak (467 lagun %31). Euskaraldirako izena eman duten entitateak, berriz, 104 izan dira Elgoibarren, eta guztira, 419 arigune sortu dira entitate horietan.

Mendaron, 239 lagunek parte hartu dute Euskaraldia ariketan: 153 emakumek (%64) eta 86 gizonek (%35). Genero desorekak, beraz, duela bi urteko mailan mantendu da. Rolei dagokionez, berriz, 180 Ahobizi izan dira (%75), eta 59, Belarriprest (%24).

‘Erradikalak ginen’ ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da bihar Elgoibarren



Ane Labaka bertsolariak eta Beatriz Egizabal antzezle eta ipuin kontalariak *Erradikalak ginen* ikuskizuna emango dute bihar, hilak 28, Elgoibarko Aita Agirre kultur-gunean (19:00). Feminismoa zehar lerrotzat hartuta eta umorez, gai ugari kantatu eta kontatuko dituzte. “Lehen aldi hartako pasioz, korseak askatuta, bertso eta barkarrizketa bidezko formatuari eutsi eta buruberokiak eduki berriz betetzeko gogoz gatoz”, diote. Neska gazte promesa etiketaz, zahartzeaz, gorputzaren aldaketez, sexualitateaz, merkatu patriarkalaz, interseksionalitateaz, beldurraz, biolentziaz eta sistemak emakumeak zeharkatzen dituen beste hainbat gaiz kantatu eta kontatuko dute. “Umorez, beraz, serio”, zehaztu dute. Ikuskizun hau bera Mendaron ere ematekoa dute abenduaren 12an. 70 minutu inguruko iraupena du ikuskizunak

Jubilatuen Biltokian egingo dituzte gaur odol ateratzeak

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur arratsaldean Elgoibarren, eta elkarteko arduradunek jakinarazi dute lokal berria izango dutela horretarako: pandemia hasi zenetik kiroldegian egin izan dituzte ateratzeak, baina gaur, Jubilatuen Biltokian egingo dituzte. 16:30ean hasiko dira, eta 20:00ak aldera arte jardungo dute. Arduradunek eskatu dute aurrez izena emateko, 623 328 408 telefonora deituta. Era berean, 45 odol emaile behar dituztela zabaldu dute Sare Sozialetan.

Urtarrilaren 7rako iragarri zuten ‘Altxorraren bila’ hilaren 5era aurreratu dute

Atxutxiamaiak eta Ludotekak Eguberrietako oporraldirako antolatutako ekintzen barruan aldaketa bat egon da: Urtarrilaren 7rako ‘Altxorraren bila’ ekintza antolatuta zuten LH4tik LH6ra arteko umeentzat, baina arduradunek jakinarazi dute urtarrilaren 5ean izango dela. Gainerako ekintzak bere horretan mantenduko dira: *Ganbarako ipuinak* (abenduak 28), *Trakamatraka* (abenduak 29), *Historia de un baúl* (abenduak 30), *Organik* (urtarrilak 4) eta *Aioko* (urtarrilak 8). LH1etik LH6ra artekoek Eguberrietako apaingarriak egingo dituzte abenduaren 23an, eta esan bezala, *Altxorraren bila* urtarrilaren 5ean izango da. Informazio gehiagorako 943 741 746 edo 943 748 883 telefonoetara deitu daiteke.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112




Gaztetxe aurreko autobus geltokian ez dago markesinarik: “Gaztetxe aurreko autobus geltokian ez dago markesinarik eta euria egiten duenean busti egiten gara. Ingurunea, gainera, iluna da, eta eskertuko genuke zonalde horretan argiteria ere berritzea. Eskerrik asko”.



Gasolindegirako sarrera norabide bakarrean izan beharko litzateke: “Debatik Elgoibarrerako norabidean datozen autoentzat debekatuta egon beharko litzateke gasolindegian sartzea. Sekulako auto-ilarak sortzen dira, eta ondorioz, egoera arriskutsuak sortzen dira. Kasu horretan derrigorrezkoa izan beharko litzateke Maalako errotondaraino joan eta han buelta hartzea, gasolindegira Debarako noranzkoan sartzeko. Duela gutxi istripu bat izan zen pare horretan, eta ez da estreinako aldia. Ilun dagoenetan, bereziki, sortzen dira arazoak. Ez da ezer kostatzen autoz metro batzuk gehiago egitea”.



Zer dela-eta itxi dute Idotorbetik Morura arteko bide hau?: “Idotorbetik Morura arteko bidea itxi egin du norbaitek. Gaztelania hutsez jarri du, gainera, kartela. Bide hori orain arte zabalik egon izan da. Debekatu daiteke hortik pasatzea? Nor arduratzen da hortaz?”. Udaleko Hirigintza Sailera jo du BARREnek erantzun bila, eta ondorengo erantzun digute: “Galdera hori erantzutea ez da horren erraza, bat-batean behintzat. Antzinako bideak diren ikusi beharko litzateke, eta baita bide publikoak diren (baliteke bide pribatua izatea, nahiz eta jabeak pasatzeko aukera utzi). Baliteke ere, bide publikoa izanik, beste bide alternatibo bat egotea, edo egitea, horrela bi ikuspegiak bateratuz, hau da, pasatzeko aukera eta lurjabeen pribatutasuna”.



Eskerrik asko Aita Agirre kulturguneko komunak zabaltzeagatik: “Joan zen astean kexa jarri genuen, eta aste honetan txalo egitea tokatzen zaigu. Eskerrik asko Aita Agirre Kulturguneko komunak zabaltzeagatik. Tabernak itxita dauden honetan, komun publikoen beharra handitu egin da, eta eskertzekoa da”.



Bertso jolasean

Lau urteko etenaren ondoren, bertso-eskola jarri du abian Elgoibarko Udalak 8 eta 12 urte bitarteko 11 ikaslerekin. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak 2011n sortutako bertso-eskolak 2016an bukatu zuen bere ibilbidea, haur gutxik eman zutelako izena 16/17 ikasturtean, eta gerora ere, interes handirik ez zutelako agertu herritarrek. Orain, egitasmo hari heldu dio berriro Udalak, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekin elkarlanean. 2004tik ari dira bi eragileok ahozko komunikazioa bertsoaren bidez lantzen, Elgoibar Ikastolarekin eta Herri Eskolarekin lankidetzan. Urtez urte, LH4ko eta LH5eko 250 ikasle inguruk parte hartu ohi dute bertsozaintza lantzen eskoletan, eta horri jarraipena emateko bidea ere bada bertso-eskola. Astean behin biltzen dira ordubetez bertso-eskolan izena emandakoak Aita Agirre kulturagunean, Eneko Beretxinaga irakaslearekin (Soraluze, 1986). Elgoibar Ikastolan eta Herri Eskolan bertsozaintza eta ahozkototasuna lantzeko saioak ematen dituen bertsolaria da Beretxinaga, eta Elgoibarren, 263 ikasle ditu bere ardurapean. Gaur [astelehena] bertso jolasera batu da BARREN, bertso eskolara.

- AINARA ARGOITIA-

A rrapaladan sartu dira neska-mutilak ikasgelara. Gogotsu datoz bertso-eskolara eta nabari zaie. "Bota gel parrastadaxo bat eskuetara" gogorarazi die irakasleak, jarlekuak okupatzerako. Musukoak eroso dituzten galdetu ostean, aulkiak baztertu eta lurrean borobil erdi bat eginez esertzeko eskatu die gero. 11 dira gelan, baina gaur bi lagun falta zaizkie. Umorezko bertso sorta bat entzunaz hasiko dute saioa. Hasteko, Unai Mendizabal bertsolariaren *Baldarrak* kopia sorta abestuko dute elkarrekin, 'Hona bildots ezitia' doinuan. Doinua ezaguna dutela diote umeei, eta ekin diote kantuan hamar ahotsek arbel digitalari begira. "*Gure herrian bada / baldarra ugari / berriz deitu diogu anbulantziari*"... Bederatzi ahapaldiak kantatu dituzte elkarrekin, baina bertso gosez dira gazteak eta binaka ilaran jartzeko agindu die irakasleak. Ariketa errepikatu dute, baina oraingoan, binaka. Serio hasi dira Inar eta Garazi, baina zaila zaie haurrei Mendizabalen umoreari serio eusten. Ez dago beharrik ere. Jolasa da bertsoa eta gozamenetik hurbildu nahi ditu bertso-mundura Eneko ikasleak. "*Jon traktoretik behera / jausi da, begira / ximaur pila gainera / buruz erori da*" kantatu dute barrearari eutsi ezinda Unaxek eta lagunak, eta zortzigarren ahapaldirako lehertu dira azkeneko ilarakoak: "*Udaltzaina zuzentzen / kotxe trafikoa / putz egin ta irentsi / du txilibitaa*". Ez zaie gustatu bertsoari ari zirenei, eta bertsolariarentzat taldearen babesba zer den ikusarazi nahi die irakasleak. Eseriarazi ditu berriro lurrean, borobilean. "Ohituta zaudete beste jende baten aurrean kantatzera?", galdetu die. Ezin txanda hartuta erantzun diote neska-mutilek. Baietz diote gehienek,

ikastetxeetan kantatu izan dutela, inauterietan eta Eguberrietako jaialdietan. "Alderik igarri duzue guztiok batera abestearen artean eta bikoteka abestearen artean?", galdetu die ondoren. Mutil batek ez beste guztiok nahiago dute bikoteka edo bakarka kantatu; neskek, aldiz, taldean erosoago kantatzen dutela erantzun dute. "Ondo, bietara ondo, baina zuek badakizue bertsoa, askotan, bat-batekoa izaten dela eta hor norberak bakarrik jardun behar izaten duela kantuan. Normala da halakoetan babes gutxiago sentitzea. Horregatik da garrantzitsua entzulearen babesba. Goxo hartuko gaituela pentsatuz gero, erosoago arituko gara. Eta bertso-laguna ere bada entzulea", azaldu die irakasleak. Hor gaurko lehenengo ikasgaia. Garrantzitsua da elkar babestea; garrantzitsua da denok gozatzea. Zer pentsatua eman die ikasleei, ondoren esan dituztenak kontuan hartuta. Nora eta Maialen gaizki sentitu ohi dira txiste bat egin eta ingurukoek barre egiten ez dutenean, eta "triste bezala" sentitzen da, barre egiteko motiborik eman ez, eta ingurukoak barrezka hasten zaizkionean. Ulertu dute ikaskideek. Lagunekin barre egitea beharrezkoa ez eze, ona ere bada. Lagunetaz, baina, ezin da barrerik egin bertso eskolan.

Eta prestatu dira bigarren ariketarako. Zuhaitz txuria jolasa proposatu die Eneko. Jolaskide guztiok begiak itxita dituztela, irakasleak karta bat erakutsi die, banan-banan. Alde batean, hitz bat dakar karta horrek, bestean, ezer ez: txuria. Bati ez beste guztiak hitza erakutsi die Eneko, eta hitz hari lotutako beste bana esateko eskatu. Jolaskideetako bati, baina, alde txuria erakutsi dio eta hark

ahaleginak egin behar izan ditu disimulatzen, besteek ez igartzeko jolaserako hitza zein den ez dakienik. Ekin diote jolasari. *Eskalada* da ezkutuko hitza. Eta Enekok emandako lehenengo hitzak, sokak, soka ekarri du: paret, rokodromoa, arnesa, magnesioa, paret zapala, eskalatzaila, harría, kantu-hankak... Unax da azkena. "Zaldi-hankak", bota du. Eta lagunak ez dute zalantzarik egin. "Unax da txuria", esan dute ia aho batez. Baina oker daude. Junek ziria sartu die. Ezjakintasuna disimulatzea ere jolasaren parte izan daiteke batzuetan; edo nahiago bada, eskura komeni den erreminta bat-batekoan ari garela.

Botatako oinekin kantuan jarri ditu gero irakasleak. Puntua eman die, eta arnesa erriarekin esaldia bukatzeko proposatu, 'Hona bildots eztiá' doinuán. "Erortzen baldin banaiz, hauxe da

babesa..." ekin dio Enekok eta erantzun dio Maialenek: "Eskerrak nik daukaten jantzita arnesa". Inarrek ere eman dio azkena irakasleak botatako puntuari "eskalatzeko behar dut kristoneko arnesa".

Errepikatu dute jolasa, inpresora hitza emanda. Eta bota dituzte familiakoak egiten zaizkien hitzak: ordenagailua, informazioa, nintendo switch, entxufea, tableta, apple, wifi, pantaila, Internet, arratoia. Senide diren hitzak topatzea baino zailagoa zaie hitz haiekin esaldia jostea, baina ezinik ez dago. Lotsak lotzen ditu ikasleetako batzuk, baina ekinaren ekinez hartuko diote neurria lotsari ere. Bada hori ere bertso eskolaren helburuetako bat. Lotsarik behar ez den gauzetan lotsak alboratzea, eta hori, jakin badakite, gure jolas-lagunek: kantuan egin nahi duen laguntaldean lotsa sekula ez dela lagun ona.

Ikasleen ahotan.....

Inar Urizar (10 urte)



"Etxean esan zidaten lagun gehiago apuntatu ezean ez zela taldea sortuko eta pena eman zidalako eman nuen izena, baina gero hasi nintzen, eta asko gustatu zitzaidan hona etortzea. Bertso-eskolatik gehien gustatzen zaizkidan hiru gauzak dira lagunekin egoten naizela hemen denbora batez, bertsoak kantatzen ditugula eta ondo pasatzen dudala. Bertsolarietan gehien Maialen Lujanbio gustatzen zait".

Unax Arzamendi (8 urte)



"Bertsoak kantatzea gustatzen zaidalako eman nuen izena bertso-eskolan eta oso gustura nago. Hemen, lagunekin nago, bertsoak sortzen eta kantatzen ditugu eta oso ondo pasatzen dugu. Bertsolarietan gehien Irati Alcantarilla gustatzen zait".

Garazi Garmendia (9 urte)

"Lotsa galtzeko eman nuen izena bertso-eskolan, eta bertsoak kantatzea gustatzen zaidalako ere bai. Hasi naiz pixkat lotsa galtzen eta oso ondo pasatzen dut. Gehien-gehien Zuhaitz txuria ariketa gustatzen zait, eta lagunekin egotea bertso-eskolan. Bertsolari bat aukeratzekotan Maialen Lujanbio aukeratu nuke".



Maialen Arriola (12 urte)

"Txikitan bertso-eskolan ibili nintzen, baina gero, bertan behera gelditu zen bertso-eskola, ez zelako talderik sortu eta pena eman zidan. Ikastolan ere ibili nintzen bertsogintza lantzen eta gustatzen zaidan kontu bat denez, izena ematea erabaki nuen. Errimekin euskaraz jolastea gustatzen zait gehien, eta adin ezberdinetako lagunak egitea. Eta bertsolarietatik bat aukeratzekotan, Beñat Gaztelumendi aukeratu nuke nik".





ENEKO BERETXINAGA BERTSO ESKOLAKO IRAKASLEA

Bertsozale elkarteak hezkuntza arautuan daukan transmisio proiektuko irakaslea da Beretxinaga.

♦ **Bertso-eskola martxan da. Zeren bila datoz umeak eta zeintzuk helburu ditu bertso-eskolak?**

Bertsoak elkartu gaitu eta kanturako batu gara, baina bertso eskola ez da bertsolariak sortzeko huts-hutsean. Lagun talde bat gara. Egia da hona datozen gehienek bertsoa lehenagotik eza gutzen dutela eta horretan sakontzera datozela, baina edonork izan dezake lekua hemen. Taldean, badauzkagu eskolan *Gu ere bertsoan* proiektuan parte hartu dutenak edo parte hartzen ari direnak, eta badauzkagu, 8 urtekoak, oraindik proiektu hori eza gutzen ez dutenak, baina horiek ere nolabaiteko erreferentziak badituzte. Bertsoarekin lotura izateko, beste edozein gauzatan bezala, inguru bat behar da, eta bertso-eskolak hori eskaintzen du, denek ez dutelako inguru hori etxean. Ematen du ahozkototasuna lantzeko bidea, nahiz eta astebean ordubetez bakarrik bilduta zaila den ikasle bakoitzari horretarako behar duen denbora eskaintzea.

♦ **Izango dira bertsoa gustuko duten ume gehiago, baina lotsagatik bertso-eskolan izena ematera ausartzen ez direnak. Zer esango zenieke?**

Ez gaude ohituta jende aurrekora, baina hemen, saiatzen gara alderdi hori lantzen. Saio batzuk ez dira bertsoz hain bideratuak izaten; gehiago izaten dira sentipenak eta emozioak agertzerako bideratuak. Ariketak proposatzen dizkiedanean aldiro galdetzen diet nola sentitzen diren, zer pasatu zaien buruan puntu bat bota ezinean ibili direnean. Nik hori jakin behar dut beraien laguntzeko eta, aldi berean, beraiatzat ona da kontzientzia har dezaten erraz egiten duten horren inguruan, bai eta zaila edota mingarria egiten zaienaren inguruan ere. Bertsoan egiten ikasten den bezala, bertsoak entzuten ere ikasten da bertso-eskolan, eta kanturako rolak banatzen ditugunean ere saiatzen gara talde sentimendua indartzen. Entzulearen rolean nola egon ere ikasten den gauza da. Bertsoaren egitura eta alde teknikoak ikasteko, doinuak, errimak eta gaiak dagozkien ikuspegi ezberdinak lantzen dira. Hori produkzioari begirako zerbait da, baina hortik aparte, taldea egiteko edo talde-giroa sortzeko dinamika ezberdinak egiten ditugu. Batzuetan egin ditzakegu ariketa batzuk berez bertsoarekin inolako zerikusirik ez dutenak, nor bere buruan konfiantza lortzeko eta taldea trinkotzeko oso baliagarri direnak.

♦ **Garai batetik ez dira gutxi aldatu gauzak. Bertso eskolan ez dugu paperik eta boligrafirik ikusi.**

Bertsoa ikasteko modu ezberdinak aztertzen dihardugu Bertsozale elkartearen eta didaktikaren alorrean halako trantsizio garai batean gaude. Orain arte idatzizko jarduna landu da asko bertso eskoletan eta orain gehiago lantzen da zuzenean bat-batekotasuna,

“Orain, zuzenean bat-batekotasuna lantzen da gehiago, idatzizko jarduna baino”

ahozkototasuna. Dosi txikitik egiten dugu lan, euren neurri-rako ariketekin, eta saiatzen naiz eurek izan daitezkeen euren burua autoerregulatzen dutenak, derrigortu barik parte hartzerako. Hemen bakoitzak erabakitzen du gaur parte hartu nahi duen edo nahiago duen entzuterako mugatu. Bertso eskolan eroso sentitu behar dira ikasleak eta saiatzen naiz jolasaren bidez hori lortzen. Beharbada oso modu teorikoan ikasi da bertsoa urteetan, baina egia da, era berean, bertsoa beti ikasi izan dela. Hala ere, konturatu gara doinuak ikasi ahala ikasten ditugula neurriak-eta, eta bide hori urratu nahi dugu gehiago orain. Ahoz eta bat-batean ari direnerako helduleku batzuk eskaini nahi dizkiegu, baina uneren batzutan, beharbada, erabiliko ditugu papera eta boligrafia ere.

♦ **Mintzola Ahozko Lantegiak ohartarazia du ahozkototasunean izugarrizko arazoak dituztela ikasleek euren ideia eta sentimenduak nahiko lituzketen moduan adierazteko. Irakasle lanetan diharduzu eskola ezberdinetan. Zer duzu esateko?**

Bai, datuek hori diote. Nik uste dut elkarrekin komunikatzeko bideak asko aldatu direla eta horrek baduela eragina guzti horretan, baina iruditzen zait hizkuntza idatzia dela hemen gehien landu izan dena beti eta hezkuntza formalean gehien garatu dugun gaitasuna. Iruditzen zait ahozkototasunari zentralitate handiagoa eman behar zaiola hezkuntzan, eta ahozkototasuna lantzeko ariketa, dinamika, proiektu eta plan ezberdinak jarri beharko genituzkeela martxan, idatzizkoari duen garrantzia kendu gabe. Euskararen kale erabilera apalduz doa eta erabilera oso lotua dago hizkuntza gaitasunarekin. Beraz, alderdi hori lantzea ezinbestekoa zaigu, bai eta euskara erregistro ezberdinak lantzea ere gure egunerokotasunerako.

♦ **Zure ikasleek zer lortuko balute zeundeke zu gustura?**

Bertso zaletasuna badute eta jarraitzeko gogo horri eusten badioke, pozik. Ia ikasturte amaierarako koplaren batzuk kantatzeko edota zortziko txiki bat osatzeko gai diren.

♦ **Ba al dago oraindik bertso-eskolan izena emateko aukerarik?**

Talde hau itxiztat eman dugu, baina ikusiko bagenu jendeak interesa duela apuntatzeko genituzke haien izenak zerrenda batean eta hamabi bat batzuean osatzeko genuke beste talde bat. Interesa duenak Euskara Sailean eman behar du izena, 943 744 366 zenbakira deituta, edo emailaz euskara@elgoibar.eus helbidera mezu bat bidalita.



1942

Aste honetako erretratu zaharra Julen Zabaletak bidali du BARREnera. Arraten aterata dago, Eibarko Kirol Klubeko domina banaketa egunean, hain zuzen ere. Urtero egiten zuten ekitaldi hau, gaur egun finalista egunean egiten den moduan. Argazkian ageri diren guztiak Elgoibarko mendizaleak dira, baina Eibarko Kirol Klubeko bazkideak, garai hartan oraindik ez baitzegoen mendi talderik Elgoibarren. Morkaiko mendizale elkartea 1943an sortu zuten. Julen Zabaleta ez beste guztiak hilda daude gaur egun.

Zutik: Pio Etura, Julen Zabaleta, Rafael Mugerza, Alberto Juaristi, Sebastian Uribe, Jose Larreategi eta Iñaki Konde.

Behean: Jesus Mari Etura.

Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:

barren@elgoibarkoizarra.eus

Barreneko bulegora ekarri:

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



Indarkeria matxistak etenik ez duela ohartarazi dute pandemiak dena gelditu duen urtean

COVID-19aren pandemiak eragina izan du aurten azaroaren 25aren harira antolatu dituzten ekintzetan. Indarkeria matxistaren kontra plazak jendez betetzera deitu izan dute instituzioetatik eta mugimendu feministatik azkeneko urteotan, baina aurten jendetzak saihesteagatik, bestelako ekintzak antolatu dituzte. Elgoibarren, esaterako, *Zutik emakumeok* argazki erakusketako lanak dauzkagu ikusgai joan den barikutik herriko 16 dendetako erakusleihotan (abenduaren 4a arte). Era berean, besoko moreak ere banatu dituzte dendetan eta Lehen Hezkuntzako bigarren mailako eskola-umeek Tratu Onen murala osatu dute, Aita Agirre kulturguneko atarian ikusgai dagoena. Era berean, Udal Brigadako eta Mankomunitateko langileak txaleko moreak jantzita ibili dira lanean. Bihar, berriz, *Erradikalak ginen* ikuskizuna ekarriko dute Ane Labaka bertsolariak eta Beatriz Egizabal antzezle eta ipuin kontalariak Aita Agirrera, 19:00etan. Feminismoa zehar lerrotzat hartuta eta umorez, gai ugari kantatu eta kontatuko dituzte. Mendaron, bestalde, zapata gorriak atera zituzten kalera eguaztenean, indarkeria matxistaren biktima izan direnak oroitzeko. Zapata pare bakoitzaren ondoan mezu bat ere utzi zuten, egoeraren larriaz ohartarazteko. Udaletxeko atarian, berriz, erakusketa osatu zuten Azaroaren 25a gai hartuta Ludotekako eta Gaztelekuko haurrek egindako lanekin.







▶ MIKEL ANAKABE

IRAKASLEA ETA EISYME

PLATAFORMAKO SORTZAILEA

“Konfinamenduan eskolaren osagarri sortu genuena, eskola bilakatu da orain”

Mikel Anakabe (Elgoibar, 1992) irakaslea da ikasketaz, eta orain, irakaskuntza tradizionaletik harago eman du pausoa: Beste bi lagunekin batera, Eisyeme plataforma sortu dute, ikasketak etxetik egin ahal izateko plataforma, hain zuzen ere. Konfinamenduan bururatu zitzaion ikasleei etxetik ikasteko moduko eskola birtuala sortzea, eta holaxe hasi zen lanean. Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat sortu dute, eta momentuz harrera ona izaten ari da.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ Noiz eta nola bururatu zitzaizun Eisyeme plataforma sortzea?

Konfinamenduan bururatu zitzaidan ikasleek etxetik ikasteko aplikazioen bat sortzea. Irakaslea naiz, baina orain lan-gabezia nago, eta horregatik hasi nintzen proiektu hau garatzen. Ikastetxe batzuk hasi ziren eskolak on-line ematen, baina beste asko etxeko lanak bidaltzera mugatu ziren, eta horren aurrean ikasleei laguntzeko zerbait behar zela bururatu zitzaidan. Ikasleak etxean zeuden, eskolara joan ezinda, eta buruari bueltaka hasi nintzen zerbait sortzeko lanetan. Lagun bati deitu nion, eta bion artean pentsatu ge-

nuen campus birtual moduko bat egitea, baina Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat.

♦ Zein da campus birtual horren muina?

Gure helburua zen eskolan ematen dituzten ikasgai guztiak jartzea on-line. Eskola curriculumean oinarrituta, ikasgai guztietako edukiak grabatu egin ditugu bideoz, eta campus birtualean jarri ditugu ikusgai. Ikasleei beharrezko erraztasunak eskaini nahi genizkien, eta 24 orduko zerbitzua eman nahi genien. Bagenekien irakasleak ezin zirela 24 orduz egon ordenagailuaren aurrean ikasleak konektatu zain, baina bideak jarri ditugu harre-

manetarako. Irakasleek sakelako telefonoan jasotzen dituzte ikasleen mezuak, eta une horretan ezin badiete erantzun, hitzordua zehazten dute elkarrizketa baterako. Irakaslearekin harremantzeko moduz gain, ikasleek beraien artean zuzenean hitz egiteko modua ere eskaintzen du plataformak, eta horri esker, beraien artean ere zalantzak konpartitzeko aukera daukate. Plataformak zoom aplikazioa ere integratuta dauka, eta horri esker, irakasleak zuzeneko klaseak ere eman ditzake beharrezkoa den kasuetan. Materia ikasleen esku jartzeaz gain, lanak ere jartzen dizkiegu, eta lan horien segimendua ere

egiten zaie. Plataformak ematen digu ikaslearen berri, noiz konektatu den, zenbat denboraz, zein bideo ikusi dituen... horri esker dena kontrolatzen dugu.

◆ Nola funtzionatzen du plataformak?

Ordenagailua eta Internetarako konexioa edukita, nahikoa da. Ikasle bakoitzak kuota bat ordaintzen du hilean, aukeratzen dituen ikasgaien arabera. Ikasgai solteak hartuta, hilean 20 euro ordaindu behar dira, eta kurtso osoa hartuta, 80 euro hileko. Normalean, etxetik ikastea erabakitzen duenak bere mailako ikasgai guztietan ematen du izena, baina badaude eskola partikular moduan ikasgai solteak ere aukeratzen dituztenak. Adibidez, matematiketan laguntza behar duen ikasle batek badu matematika soilik hartzeko aukera. Klase partikularretara joan beharrean, eskola osagarriak on-line jaso ditzake gure campus birtualean, oso modu errazean. Ikasleek alta eman behar dute, eta gero bere izena eta pasahitza erabilita sartuko dira campus birtualera. Han mailaka eta arloka sailkatuta aurkituko dituzte ikasgai guztiak. Ikasle bakoitzak nahi dituen ikasgaietan matrikulatzeko aukera izango du, eta aukeratu dituen ikasgai horietako materiala agertuko zaio. Material horren barruan gai desberdinak aurkituko ditu; ikasturtean zehar ematen ari diren unean uneko gaiak. Batuketak eta kenketak ikasten ari direnek horri buruzko azalpen bideoa aurkituko dute, esaterako. Norberaren neurriera egokitutako materia sortzen saiatzen gara, eta irakaslearekin harremana ere norberak nahi edo ahal duenean izaten da, betiere, ordutegi normal baten barruan. Ikasleentzat laguntza handia da, baina gurasoentzat ere bai, askotan etxeko lanetan laguntzeko zailtasunak izaten dituztelako eta gure materialak eurentzat ere lagungarri direlako. Eta, behar bereziak dituzten ikasleentzako ere oso interesgarria da. Asperger kasu bat daukagu, esaterako: ikasle horrek koefiziente intelektual oso altua dauka, eta eskolan, gainerako ikasleen erritmora, aspertu egiten da. Gainera, maskara ezin du erabili, eta maskara gabe ezin da egon eskolan.

“Gai guztiak hiru hizkuntzatan sortu ditugu: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez”

Gure plataforman bere erritmora doa, eta horrek motibatu egiten du.

◆ Konfinamendua bukatu zen, eta ikasleak eskolara itzuli dira. Zein erabilpen dauka orain plataformak?

Berez irailean hasi zen ikasturtea, baina ikasle askok edo, haien gurasoek, erabaki dute etxetik ikasten jarraitzea. *Homeschooling* edo etxetik ikastea ez da berria, beti egon dira seme-alabak eskolara bidaltzearen kontrako gurasoak, eta koronabirusaren pandemiarekin metodologia hau sendotzen ari da. Uste duguna baino ikasle gehiago daude etxean: batzuk konfinatuta daudelako, beste batzuk arnas-keta arazoak dituztelako eta gurasoak umea eskolara bidaltzeko beldur direlako, edo etxean arrisku taldeko senideren bat bizi delako eta nahiago dutelako umea eskolara ez joatea... Azken kasu horretan, esaterako, umea eskolara bidaliz gero, ezingo litzateke etxean bizi, eta gurea moduko plataforma aukera oso interesgarria da familia horientzat. Konfinamenduan eskolaren osagarri bezala sortu genuena orain, eskola bilakatu da askorentzat. Une honetan 20tik gora ikasle daude izena emanda gure campus birtualean. Aurrera begira, eta beste konfinamendu bat etorriko balitz, gustatuko litzateke gorpuztuz hezkuntzako ikasgai-rako bideoak ere sortzea.

◆ Zein hizkuntzatan sortu duzue campus birtuala?

Espainia guztiko ikasleentzako zerbitzua sortu dugu, eta gai guztiak hiru hizkuntzatan grabatu ditugu: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Katalanez grabatzea ez gara heldu oraindik, baina au-

rera begira agian gehituko dugu hizkuntza hori ere.

◆ Campus birtualean ikasten duten ikasleak nork eta nola ebaluatzen ditu?

Lehenik eta behin, campus birtualaren bitartez ikasi ahal izateko ikastetxearen baimena behar du ikasleak, eta ikasturte amaieran eskolako azterketak gainditu beharko ditu. Eskola curriculumak orokorra da, baina badakigu gero ikastetxe bakoitzak moldaketak egiten dituela, orduan, gurean izena ematen duten ikasleen eskolatan duten curriculumaren arabera egokitzen ditugu ikasgaiak. Kasu batzuetan ikastetxeek ez dute baimenik ematen, eta horrelakoetan guk ezin dugu ezer egin. Hala ere, guraso batzuk etxetik ikastearen aldekoak dira, eta badaude ikastetxearen baimenik gabe ere sistema honen alde egin dutenak. Kasu horietan ebaluazio sistema gurasoek negoziatu beharko dute ikastetxearekin, horrelako egoeretan guk ez dugulako harremanik izaten eskolarekin. Beste herrialde batzuetan etxetik ikastearen aldeko apustua sendoagoa da, baina Espainian oraindik zaila dago. 2006ko hezkuntza legediak dio 6urretik 16ra derrigorrezkoa dela eskolara joatea, baina Konstituzioak, aldiz, dio hezkuntza librea dela. Kontraesan moduko bat dago, eta erkidego autonomo batetik bestera ere diferentzia handiak daude. Berez *homeschooling*-a ez da legala.

◆ Nolako emaitzak ari zarete lortzen?

Oso pozik gaude. Hasiera kaotiko samarra izan da, eta irailean lan pila batekin ibili ginen, baina pozik gaude. Oraindik ikasgaietako materiala prestatzen ari gara. Martxoan hasi ginen eta asko daukagu prest, baina ez digu eman maila guztietako ikasgai guztiak prestako denborarik ikasturte hasierarako. Bideo bakoitzak lan handia dauka atzetik. Curriculumeko ikasgaiak hartu eta geuk ikasi behar ditugu lehenengo, eta ondoren azalpen bideoa grabatu eta editatu. Ikastetxeetan ez dugu aurkeztu gure proiektua, badakigulako ikastetxe asko honen kontra daudela, baina gutxi batzuk agertu dute interesa.



“Ez sinestekoa da Julen Aginagalderekin aldagela partekatzea”

▶ JULEN URRUZOLA

BIDASOAKO ESKUBALOI
JOKALARIA

Julen Urruzola (Elgoibar, 2002) eskubaloi jokalaria 18 urterekin egin du debuta Asobal Ligan C.D. Bidasoa eskubaloi taldearekin. Aurten bete dira 25 urte Elgorriaga Bidasoak Europako eskubaloi txapelketa irabazi zutenetik; edozein kiroletan Europako Txapelketa irabazitako lehen euskal taldea izan zen. Urte txar batzuen ostean, berriro ere goi mailara itzuli da Irungo taldea eta bigarren postuan daude Ligan. Urruzola Bidasoaren urterik onenak pasa zirenean jaio zen arren, badaki historia handiko talde batera ailegatu dela.

- ASIER ORBEA -

♦ **Debuta egin duzu Bidasoarekin Asobal Ligan, baina pandemia garaian izan da. Gazitik ala gozotik izan zuen gehiago?**

Asobal Ligan debutatzea helburu bat zen niretzat, eta amets bat bete dut Bidasoa moduko talde historiko batekin debuta eginda, baina, egia da ez zela egoera normal batean izan, koronabirusagatik. Zorionez, debut partida jokatu gurenean 400 ikuslerra arteko aforoa zegoen baimenduta Artalekun eta eduki nuen zaleen berotasuna sentitzeko aukera. Nire azalean sentitu nuen Bidasoako zaleek nola animatzen dituzten jokalaria gazteak. Nava taldearen aurka jokatu baino bi egun lehenago jakin nuen jokatzeo aukera izango nuela eta urduri pasa nituen egun haiek, ez baita ohikoa Asobal Ligan 18 urterekin debutatzeko aukera izatea, are gutxiago taldera ailegatu berritan... eta nahi nuen gauzak ondo irtetea. Kantxara irtentzen zaren baretu ziren urdurtasunak, eta gainera gol bat sartzeko aukera ere izan nuen azken segunduetan; ezin dut gehiago eskatu.

♦ **Nola bizi izan dute ingurukoek debuta?**

Zorionak eman zizkidaten eta nigatik asko pozten zirela esan zidaten. Denak ez, baina lagun batzuk badauzkat eskubaloia zaleak direnak eta partidak jarraitzen dituztenak. Covid-ik ez balitz egongo partida ikusteko elkartuko ziren segurue- nez, baina aplikazio baten bidez jarraitu behar izan zuten partida.

♦ **Joan den denboraldian Bidasoa taldearen entrenamendu batzuetan parte hartu zenuen, baina Sanloko jubenil eta senior taldeekin lehiatu zinen. Taldeko kide zara orain? Zein da zure egoera?**

Bai, joan den denboraldian astean behin entrenatzen nintzen Bidasoko talde nagusiarekin. Euskadin nabarmentzen diren jokalariek ematen diete entrenamenduetan parte hartzeko aukera, eta halaxe aritu nintzen ni eskubaloiko beste promesa batzuekin batera. Dagoeneko horietatik hiruk egin dugu debuta talde nagusiarekin. Denboraldi honetan denboraldi-aurre guztia egin nuen talde nagusiarekin eta beraiekin entrenatuko naiz denboraldi honetan, baina bigarren taldearekin lehiatuko naiz, jokatzeko komeni zaidalako aurreratzeko. Esan zidaten hori zela niretzako zuten plana. Baina, noizbehinka, lehen taldearen deialdietan sar naitekeela ere esan zidaten. Arazo bat dago ordea, ez dagoelako ziurtatuta bigarren taldeak lehiatzerik izango duen. Liga txapelketa etenda dago une honetan. Bigarren Nazional mailan dihardu, Alcorta Forging Group baino maila bat beherago.

♦ **Nola hartu zaituzte taldean?**

Oso ondo. Uneoro laguntzen saiatzen dira, dakitena erakusten, badakitelako gazteok oraindik ez dugula euren parean aritzeko mailarik. Entrenatzaileek ere tratu oso ona ematen digute. Badakite gazteak formatzea garrantzitsua dela. Prisarik sartu gabe, baina gogor eta etenik gabe entrenatzeko eskatu dit Jacobo Cuetara entrenatzaileak.

♦ **Eskubaloian dena irabazitakoa den Julen Aginagalde irundarra duzu taldekideetako bat, makina bat goi mailako taldetan ibili eta gero etxera itzuli baita aurten. Nolakoa da berarekin aldagela partekatzea?**

“Jokoan alderen bat ateraz gero bakarrik da abantaila garaiera”

Izugarria da Julen Aginagalderekin aldagela berean egotea. Ia ez sinistekoa, bere kirol ibilbidea jarraitu baitut txikitatik telebistaz. Munduko jokalariek onenatarikoa izateaz gainera, giro ona sortzen du aldagelan eta gutxik edukiko dute berak beste esperientzia, dena irabazi baitu eta talderik handienetan egon baita. Talde oso on batera ailegatu naizela esan dit eta ahal dudan guztia ikasteko eta aukerak aprobeitzatzeko. Eta pazientzia izateko; helduko dela nire momentua, gauzak ondo eginez gero, iritsiko direla aukerak.

♦ **Beragatik ezer txarririk ere ezin duzu esan, Julenen anaia Gurutz baita klubeko presidentea...**

Bai halaxe da, baina ondo hartuko luke. Duela gutxira arte jokalariek izan da eta erlazio oso ona dauka jokalariekin, haien egoera hobeto ulertzen baitu. Aginagalde anaiak erreferenteak dira Irunen. Ez naiz leku txarrera iritsi.

♦ **2,04 metroekin taldeko jokalaririk garaienatarikoa zara, baina gaztea zara eta gorpuzkera egiteke daukazu oraindik. Gorputz lanketari dagokionez**

jarri al dizute helburu zehatzik?

Jokalariek sendoagoa eta indartsuagoa izateko lanean ari gara, bai, kontaktu fisikoko handiko kirola baita eskubaloia. Defentsa lanetarako gorpuzkera sendoagoa behar dut, aurkariak hobeto eusteko eta talkak hobeto agoantatzeko. Zenbat zehaztu ez didaten arren, kilo batzuek irabazi beharko nituzkeela esan didate. Kilo horiek, baina, giharrak garatu eta handituta hartu behar dira, gimnasioan pisuekin lan eginda. Bi astean behin neurtzen digute gorputzean dugun grasa maila, eta zenbat pisatzen dugun. Une honetan 92 kilo daukat.

♦ **Garaia izatea abantaila da eskubaloian?**

Garaieragatik jokuan abantailaren bat ateraz gero, bai. Nire kasuan urrutetik jaurtiketak egiteko da abantaila altuera, defentsei gehiago kostatzen zaielako nire jaurtiketa oztopatzea, baina jaurtizteko unean niganaino iritsi eta airean ukitzen banaute, errazago galtzen dut oreka ere, grabitate-zentroa gorago dudalako. Gorputz sendoago batekin errazago xurgatuko nituzke kolpeak.

♦ **Ze alde dago Alcorta Sanloko senior taldearekin jokatzetik Asobal Ligan jokatzera?**

Azkarragoak eta indartsuagoak dira Asobaleko jokalariek. Sanlokoekin jokatzeko genuenean jokalariek garaiak eta handiak ere izaten genituen aurkari, baina Asobal





“Kontaktu handiko kirola izanda, birusa elkarri kutsatzeko arriskua handiagoa da”

dindu du Bidasoak Ligan, eta 9. jardunaldian iritsi zen lehen porrota.

Talde oso ona osatu dute aurten. Entrenamenduetan duten dena ematen dute jokalariek eta igarri egiten da gero partidetan. Fixaketa oso onak egin dituzte gainera aurten, Julen Aginagalde bera edo Jose Manuel Sierra atezaina, bi aipatzeagatik. Europatik kanpo geratzea kolpe gogorra izan zen, urrunago iristeko aukera geneukalako, baina liga hasiera primerakoa izan da. Ia bigarren postu honi eusten diogun.

♦ Bartzelonari aurre egiteko moduan zaudetela uste duzu?

Ia hala den, baina zaila dago. Azken urteetan moduan, gainerako taldeak baino koska bat gorago jarraitzen du Bartzelonak. Hori bai, iaz Bidasoak erakutsi zuen estu har dezakeela Bartzelona. Artalekun partida bikaina jokatu zuten, lehen zatian batez ere.

ligan azkarrak ere badira handiak edo altuak izateaz gainera. Potentzia handiagoa dute. Eta taktikoki aberatsagoa eta azkarragoa da jokua.

♦ Nolako jokalaria zara?

Kanpotik jaurtitzeko erraztasuna daukat eta ondo moldatzen naiz. Defentsan beso-zabalera handia dudala da nire abantaila nagusia, espazioak tapatzeko eta aurkarien jaurtiketei traba egiteko. Erasoan errazago aritzen naizen arren, gero eta gehiago gustatzen zait defentsako lana, sakrifikuagoa den arren.

♦ Zertan daukazu hobetu beharra?

Fisikoan, lehen esan moduan, kilo batzuk hartu behar ditut. Eta erasoan konfiantza gehiagorekin jokatu behar dut, eta berdin jaurtiketetan. Taktika aldetik nahiko ondo moldatzen naizela uste dut, iazko denboraldian joan bainintzen barneratzen gauzak.

♦ Historia handiko taldea da C.D. Bidasoa. Aurten bete dira 25 urte Europako eskubaloi txapelketako titulua eskuratu zuela ere. Igartzen al duzu?

Bai. Europako txapelkunak izan dira eta zaleek badakite talde garrantzitsua izan dela eta berriro izateko gogoia dutela gainera. Bidasoako bigarren taldeko entrenatzailea den Aitor Etxaburu ere garai haiek bizitakoa da, historiako Bidasoa onenean pibote postuan jokatu zuelako. Berak transmititu dizkigu garai haietako kontuak eta aldagelatan iriteten dira Bidasoan jokatutako jokalarik mitikoen izenak, Perunicic, Kiseelev... batzuk ezagunak zaizkit, baina gehienak ez.

♦ Unai Arrieta elgoibartarra ere izan zen Bidasoako jokalaria. Izan duzu berarekin berba egiteko aukerarik?

Bai. Hain justu, Espainiako eskubaloi selekzioan kirol psikologo lanetan dabil, eta jubencil mailako selekzioaren azken bi deialdietan egon zen gurekin lanean. Debutagatik eta gola egiteagatik zoriondu ninduen.

♦ 1994-1995 denboraldiko historiako hasiera onenaren marka ber-

♦ Nola ari da eragiten koronabirusa goi mailako eskubaloiari?

Kontaktu handiko kirola izanda, birusa elkarri kutsatzeko arriskua handiagoa da, eta ia talde guztietan atzeman dituzte positiboak. Debuta egin nuen partidaren aurkari izan zen Nava taldean 17 kasu eduki zituzten kolpe batean, eta partida hartan Bidasoako bi jokalarik kutsatu ziren. Dagoeneko bizpahiru etengaldi izan ditu Ligak Covidagatik. Partida bakoitza jokatuz aurretik egiten dizkigute probak, serologikoak edo PCRak. Eta badaezpada bi aste behin egiten dizkigute probak.

♦ Goazen goi mailatik hastapenetara. Nola hasi zinen eskubaloiari?

Umetan Futbol Eskolan hasi nintzen, baina infantil mailara ailegatu baino lehenago eskubaloiagatik aldatu nuen. Nire anaia nagusiak ere eskubaloiari jokatzen zuen eta halaxe hasi nintzen.

♦ Umetatik hasi zinen nabarmentzen?

Txikitatik izan naiz garaia eta golea-tzaile nagusiena ere bai. Infantilen bigarren urtean nengoela jaso nuen Espainiako selekzioaren deia aurrenekoz. Gogoan dut oso urduri eta zalantza askorekin joan nintzela lehen aldian hartan. Batez ere Elgoibar moduko herri txiki batetik zihoan jokalarik batetaz zer pentsatuko ote zuten zen nire kezka. Ez da berdina Bartzelonatik joan edo Sanlotik joan.

♦ Askotan jokatu duzu Euskadiko eta Espainiako behe mailako selekzioekin. Nolako esperientzia da?

Selekzioarekin astebeteko kontzentrazioak egiten ditugunean, goi mailako eskubaloi jokalarik baten bizitza nolakoa den ikusi eta ikasten da. Esperientzia aberasgarria da.

♦ Sanlon urte asko egin dituzu, zer eman dizu?

Euskadi mailan klub nahiko ona da, nesketan bereziki maila gorenean daude eta mutiletan ere primera nazionala oso liga ona da. Horrez gain, kadete eta jubencil taldeek urte askoan jokatu dituzte Euskal Ligako txapelketak eta hori ez da batere erraza Elgoibarrek eta Sanlon duten tamainarako, gauzak ondo egin dituzten seinalea da.

Arrastuan sartu: Bide onean sartu.
Andres beti izan dok oker samarra: ezin izan juagu iñoiz arrastuan sartu.

Euskaraldiaren amaiera ekitaldia abenduaren 3an izango da, Euskararen Nazioarteko Egunean, Herriko Antzokian

Abenduaren 3a da Euskararen Nazioarteko Eguna, eta hain zuzen ere, egun horretarako antolatu dute Euskaraldiaren amaiera ekitaldia. Herriko Antzokian izango da, 19:00etatik aurrera, eta bi ekintza nagusi izango ditu: Batetik, *6.000 metroan ere, oxigenoa euskarari* dokumentalaren emanaldia, Felipe Uriarte zuzendariak aurkeztuta, eta bestetik, *Bigarren Euskaraldia Elgoibarren* bideoa. Elgoibarko Euskaraldia Taldeak ariketan izena eman duten herritar guztiak gonbidatu nahi ditu amaiera ekitaldira. Herriko Antzokiko edukiera mugatua dago une honetan koronabirusaren eraginez. Hori dela-eta, bertaratzeko interesa dutenek izena eman behar dute aurrez 943 741 626 / 643 499 169 telefonoetara deituta edo www.elgoibarkoizarra.eus edo www.elgoibar.eus webguneen bitartez.



Abenduaren 15era luzatu dute jaiotza lehiaketan izena emateko epea

Aurten ere jaiotza lehiaketa antolatu dute, eta arduradunek jakinarazi dute abenduaren 15era arte egongo dela izena emateko aukera. Banaka edo gehienez sei laguneko taldean hartu daiteke parte. Izena emateko elgoibarkojaiotzak@gmail.com helbidera idatzi behar da. Covid egoerara moldatu behar izan dute aurtengo lehiaketa, eta ondorioz, ez da partaideen topaketarik egongo San Bartolome parrokian. Lanak abenduaren 20an aurkeztu beharko dira Aita Agirre kulturgunean, aurrez txanda hartuta. Epaimahaiak aukeratutako lanik onenek garaikurra jasoko dute, baina partaide guztientzat egongo da sariren bat. Jaiotza guztiak abenduaren 22tik 24ra eta 28tik 30era bitartean jarriko dituzte ikusgai Aita Agirre kulturgunean. Lanen egileek urtarilaren 4an jaso beharko dituzte euren jaiotzak, 17:00etatik 19:00etara.

Elgoibarren 675. urteurrena ospatzeko logotipo lehiaketa antolatu du Udalak

Elgoibar sortu zenetik 675 urte beteko dira datorren urtean, eta horren harira, logotipo lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak, Kultura Sailaren bitartez. Logotipo lehiaketan adin nagusiko edonork parte har dezake, bai Elgoibarkoek, baita kanpokoek ere, eta bakoitzak hiru proposamen aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Lana originala eta argitaragabea izan beharko da, edozein diseinu teknika erabili ahal izango da, baina formatuak eskalagarria izan beharko du eta paperean (gehienez A-4 formatuan) eta forma digitalean aurkeztu beharko dira. Logotipo bakoitzaren bi bertsio eman beharko dira, bata koloretan eta bestea tinta bakarrean.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, epaimahaia Elgoibarko alkateak eta kultura zinegotziak osatuko dute, adituen laguntzaz. Erabakia apelaezina izango da eta aurkeztutako lanen maila nahikoa ez bada, lehiaketa epairik gabe utzi ahal izango dute. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek abenduaren 10era arte aurkeztu ahal izango dituzte euren lanak Udaleko HAZ bulegoan. Saria 300 eurokoa izango da. Informazio gehiago eta oinarriak: Udaletxeko harreran, kultura@elgoibar.eus posta elektronikoan, edota 943 742 158 telefonoan.



LANA.....

Eskaerak

Langile euskalduna behar dugu hilean bi aste-buruz lan egiteko: adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.
☎ 615 006 733

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Elgoibarren bizi naiz.
☎ 660 511 781 / 943 742 330 (Elena)

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan.
☎ 642 975 934

Baserriko lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat eta ordutegi malgua.
☎ 623 162 196

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat.
☎ 685 405 820

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan. ☎ 642 975 934

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edota etxeko langile moduan.
☎ 610 668 183

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest. Aste-buruetan ere bai. ☎ 612 531 623

Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko langile moduan aritzeko prest.
☎ 631 677 339

Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko langile moduan aritzeko prest.
☎ 632 238 016

Adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan, edo orduka. Gauzez ere bai. Titulua eta erreferentziak ditut.
☎ 602 490 595

ETXEBIZITZAK.....

Bikote elgoibartarrak arrazoizko prezioa duen pisua hartuko luke alokairuan. Etxe baten jabea bazara edo norbait ezagutuz gero, deitu mesedez.
☎ 619 966 696

GARAJEAK.....

Garaje marraduna alokatzen dut Ikastolako frontoiaren alboan.
☎ 618 384 319

IBILGAILUAK.....

Autokarabana integrala salgai. 7 metrokoa, egoera onean, ekipatua. Urtean zehar gara-jean gordeta.
☎ 656 724 782 / 638 604 999

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoaldea Euzko Administratzaileen Sarakale Kontsegiua



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean bada lokal bat higiezinaren gastu komunitatik salbuetsita dagoena, komunitatearen estatutuen arabera. Klausula mota hau baliozkoa den jakin nahi nuke.

Ondasun higiezinari behar bezala eusteko gastu orokorre egingako ekarpenari dagokionez, libratze-klausulak onartzen dira; izan ere, jabeakideen ordainketak finkatutako partaidetza-kuotaren edo bereziki ezarritakoaren arabera egiten dira. Lokal batzuen jabeek, baina, ez dute komunitatearen zerbitzu batzuek gozatzeko aukerarik. Jurisprudentzia-doktrina da: Lokaleko gastuei eragiten dieten salbuespen orokorrek, estatutu-klausuletan jasoak eta zerbitzua ez erabiltzean oinarrituak, gastu arruntak eta apartekoak barne hartzen dituzte. Dena den, klausula horrek ez ditu barne hartzen elementu komunak kontserbatzeko gastuak. Eraikinaren elementu komunak kontserbaziotik kentzea kontraesana da eta komunitatearen esentziaren aurka joango litzateke, horrela aginduzko arauak urratuz. Legez kontrakoa litzateke eraikinaren kontserbazio-gastu arruntak edo apartekoak ordaintzetik sahistea lokal jabe bat, lokal hori komunitatearen parte bada.

Ondorioa. Klausula horrek adierazten duena da lokalak salbuetsita dagoela erabiltzen ez dituen zerbitzuak ordaintzetik: eskailerako argia, atariaren barneko gastuak, garbiketak, igogailua..., baina ez du salbuesten eraikina kontserbatzeko gastuetan edo erantzukizun zibilarren ondoriozkoetan parte hartzea. Hori gertatzen da fatxadako gastuekin, estalkiekin, estolderiarekin, aseguruarekin eta lokal horrek nahitaez ordaindu behar dituen antzeko beste gastu batzuekin.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Hai-zeal!** Urte askuan, txapela kaskuan! Asko maite zaitugu! Larraitz, Laiene, Irantzu, Jabi eta Nur.



Zorionak, **aitti-tta!** Horrelako jator eta alai jarraitzea opa dizugu. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Paul eta Lararen partez.



Zorionak, **Suhar,** atzo 8 urte bete zenuelako. Muxu erraldoi bat familiakoen partez. Maite zaitugu!



Zorionak, **Peru,** gaur 7 urte bete dituzulako. Familiakoen partez, muxu handi bat eta ondo ospatu.



Zorionak, **Aimar,** gaur 7 urte egin dituzulako. Jarraitu beti bezain alai eta jator. Muxu erraldoi bat familiakoen eta, bereziki, Liberen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



Badatoz Eguberriak!

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

BLACK FRIDAY

AURRERATU ZAITEZI!

MILAR

- Garbigailuak • Roonba •
- Tabletak • Telefono libreak •
- Aspiragailuak • Ile-lehorgailuak •
- Telebistak • Hozkailuak •
- Berogailuak • Labeak • Indukzioa •

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

27 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak, Elgoibarren. Jubilatuen biltokian (King-Kong eraikinean). Txanda hartzeko: 623 328 408.

28 ZAPATUA

9:00 Azken zapatuko feria. Elgoibarko baserrietako produktuen salmenta, Kalebarren plazan.

29 DOMEKA

17:00 'Bichos' filma, San Agustin kultur-gunean, Mendaron.

30 ASTELEHENA

19:00 Epeletan literatur solasaldia: Arantza Urretabizkaia: 'Zergatik panpox'. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

1 MARTITZENA

19:00 Musika Eskolako koruaren kontzertua. Streaming bidez.

2 EGUAZTENA

19:00 Musika Eskolako koruaren kontzertua. Streaming bidez.

3 EGUENA

19:00 Euskaraldiaren amaiera ekitaldia. Herriko Antzokian.

AZAROAK 25

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna

28 ZAPATUA

19:00 Bertsoa eta bakarriketa: 'Erradikalak ginen'. Aita Agirre kultur-gunean.

30 ASTELEHENA

16:30 Tertulia: 'Cuidar de ti, cuidar de mi: transformando el cuidado'. Jubilatuen Biltokian.

JUBILATU ETA

PENTSIODUNEN ASTEA

27 BARIKUA

12:00 Aurten urrezko ezteiak betetzen dituzten bikoteek izena eman beharko dute Jubilatuen Biltokian. Abenduaren 10era arteko epea dute.


28 ZAPATUA

Gabonetako otarren zozketa. Ateak itxita egingo dute eta zenbakiak jakinaraziko dira.

29 DOMEKA

11:30 Hildakoen omenezko meza. San Bartolome Parrokian.

Zinea (Herriko Antzokian)



'No matarás'

27 barikua: 19:00

28 zapatua: 19:00

29 domeka: 19:00

30 astelehena: 19:00



'Como perro y gatos. La patrulla unida'

29 domeka: 16:30



Carlos Lehr Iraegi

2020ko azaroaren 25ean hil zen, 72 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00			Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
27 BARIKUA	28 ZAPATUA	29 DOMEKA	30 ASTELEHENA	1 MARTITZENA	2 EGUAZTENA	3 EGUENA	4 BARIKUA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola
* Fernandez: Herriko Enparantza, 4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142		* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638		* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384		Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00 Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar) 943 206 984	

BARREN sare sozialetan





facebook.com/barrenaldizkaria twitter.com/barroneus instagram.com/barrenaldizkaria

Prest TO PLAY
KITARRA KLASEAK

618 205 302
estherkareaga70@gmail.com



- ◆ Goizez, eguerdiz, arratsaldez.
- ◆ Banaka, taldeka.
- ◆ Aurrez-aurre, on-line.

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

Sherpa edredoi-bilduma berria!

Oso leunak.
Alde bat mikrolinazkoa da,
eta bestea borregitozkoa.
Tamaina guztietan.



Mila esker zuen konfiantzagatik!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Egur arte eskolako ikasleek egindako lana duzue hau. Ikasle batzuek besteen irudiak marraztu zituzten eta erretratu horiekin sortutako collage-a da hau, maskararen erabileraren dokumentua. Ippitsugaki teknika japoniarra erabiliz egin zituzten umeez irudiak: errotuladorea paperetik altxatu gabe. Picassok ere erabili zuen teknika hau.






Felix Garcia-Abad Fuerte

2020ko azaroaren 22an hil zen, 80 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zure ondoan bizitza pozgarria izan da.
Ez zaitugu ahaztuko.***

Etxekoak



Felix Garcia-Abad Fuerte

2020ko azaroaren 22an hil zen, 80 urte zituela.

***Maite zaitugu, aitxitxa.
Ez zaitugu ahaztuko.***

Zure bilobak: Julene, Mikel, Olaia eta Anton



XVII. URTEURRENA

Lorea Etxabe Azkue

2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela.

***Edur zuritan hazittako
lore gorrixa zihan.
Urtu eraitten zendun
inguruko hotza,
eta bedarra hazi erain.***

***Ez dogu gehixago
zure berua igarriko,
baiña hementxe gerauko da
zure arnasia azarnia,
botatako sustraixen gainian.***

Zure familia eta lagunak

EUSKARALDIA Elgoibarren amaiera ekitaldia

6.000 metroan ere, oxigenoa euskarari dokumentala
Felipe Uriarte zuzendariak aurkeztuta

Bigarren Euskaraldia Elgoibarren bideoa



Abenduak 3, osteguna
19:00
Herriko Antzokia

IZENA EMAN BEHAR DA amaiera ekitaldian parte hartzeko.

Izena emateko: ☎ 943 741 626 📞 643 499 169 🌐 www.elgoibarkoizarra.eus / www.elgoibar.eus



Elgoibarko EUSKARALDIA Taldea